

Joseba Mirena Agirre Mugerza

*Mutriku,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Mutrikuko Leizarren baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Irabaneta baserrikoa. Hiru anai-arreba izan ziren, baina anaia oso umetan hil zen. Leizarren baserrian bizi izan da beti. Gerra sasoian soldaduak izan zituzten bertan eta gerra zibilaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

MUT-094

- **Proiektua:** Mutrikuko gerra zibilaren memoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Ugarte, Arantza
- **Data:** 2022-01-15
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Medikuaren laguntzaz bueltatu zen aita Mutrikura

- **Erref:** MUT-094/004
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra Mutrikura heldu zenean urte bat zuen Joseba Mirenak. Gerrako kontuak etxean entzun ditu. Aita eta haren koinata bat Frantziara ihes egin zuten. Aitak, Mutrikura bueltatzeko Arriolako medikuaren laguntza izan zuen. Koinata ordea Mexikora joan zen.

2. Patxi Arriola, Mutrikuko mediku ondarrutarra

- **Erref:** MUT-094/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Mutrikuko medikua Patxi Arriola zen, ondarrutarra.</p>

3. Soldaduak baserrian

- **Erref:** MUT-094/006
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Aitak ihes egin zuenean, ama baserrian gelditu zen aitonarekin, Jose Mirenarekin eta beste gizon batekin. Soldaduak baserrian agertzen ziren. Soldadu batzuk gogoratzen ditu: zumaiar bat, nafar bat, murtziar eta katalan bat... Soldaduak kartzelan ere egoten ziren eta baserritik janaria eramaten zuten.</p>

4. Soldaduek telefonoz ematen zituzten abisuak

- **Erref:** MUT-094/007
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Baserrian egoten ziren soldatuak fusilak bakarrik zituzten eta lubaki modukoak eraikitzen zituzten itsasoa eta itsasontziak kontrolatzeko. Telefonoa ere bazuten.</p>

5. Galeperren bila

- **Erref:** MUT-094/008
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Ume koxkorra zela, gerraostean, galeperren bila joaten ziren. Soldaduekin izandako pasadizoa kontatzen du.</p>

6. Kanoiak baserri gainera

- **Erref:** MUT-094/010
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Etxean osabari entzuten zion gerra garaian kanoiak nola ibiltzen ziren baserri gainera, Alkoleatik (Mutriku) Liorrera (Ondarroara). Etxe inguruan bonba bat jausi zen baina ez zen lehertu.</p>

7. Soldaduak berdez jantzita

- **Erref:** MUT-094/011
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra bukatu arte egon ziren soldaduak baserrian. Soldadu horiek, gero mugan ibili ziren makiak bilatzen. Kaki koloreko jantziak eta txapelak berdeak erabiltzen zituzten.</p>

8. Gerraosteko gosea

- **Erref:** MUT-094/012
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelako soldaduei buruz hitz egiten du. Gerraosteko gosea, bai Mutrikun eta baita Ondarroan ere. Igandetan taloak egiten zituzten eta Ondarroatik jendea joaten zen jatera.</p>

9. Garai batean ez zegoen pinurik

- **Erref:** MUT-094/013
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:21:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Baratze oso haundia zuten eta abarketan ibiltzen ziren alde batetik bestera. Oso pinu gutxi zeuden.</p>

10. Saturrarango kartzelako soldaduen etxolak

- **Erref:** MUT-094/015
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:24:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Saturrarango emakumeen kartzelatik pasatzen ziren maiz. Soldaduen etxolak non zeuden eta nolakoak ziren.</p>

11. Etxetxiki auzo eskola Mutrikun

- **Erref:** MUT-094/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ettxetxiki eskolan hasi zituen ikasketak eta gero Maristetan jarraitu zuen. Mijoa eta Galdonako haurrak ere eskola berera joaten ziren.

12. Maristetan, "Cara al Sol" eta bandera

- **Erref:** MUT-094/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maristetan, "Cara al Sol" abestu behar zuten eta soldaduak bezala kokatzen ziren. Bandera. Kapera eskolan bertan. Eskolaren antolamendua.</p>

13. Falangistak eskolan haurrak erakartzen

- **Erref:** MUT-094/019
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maristetan ikasten zuenean, astean behin herriko gizon bat joaten zitzaien falangera batzeko deia eginez. Izena ematen zutenek, falangeko arropak jasotzen zituzten. Arropak eskolara, kalera, mezetara... eramaten zituzten gero. Mezetara nahitaez joan behar zuten baina batzuetan, baserriko-lanak zirela eta libratu egiten zen Joseba Mirena.</p>

14. Franco eta Primo de Riveraren argazkiak eskolan

- **Erref:** MUT-094/022
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan, Francoren eta Primo de Riveraren argazkiak zeuden. Baita uztarriak eta geziak zituen marrazki handi bat. San Francisco Javier zen Maristen eskolako izen ofiziala.</p>

15. San Juan Txikiren fusilamendua

- **Erref:** MUT-094/025
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:28. **Bukatu:** 00:36:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>San Juan Txiki fusilatzen eraman zuten soldaduak azpeitiarrak omen ziren. Kanposantura helduan, ihes egiten saiatu zuen baina paretaren kontra fusilatu zuten. Ez du beste fusilamendurik gogoratzen.</p>

16. Ehizako eskopetak errexisatuak

- **Erref:** MUT-094/026
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:36:41. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Aitari, ehizarako zituen eskopetak kendu zizkioten gerraostean eta baimen batean haien bila joan zenean, udaletxean ez zizkioten eman nahi izan. Bere koronelak hura jakinda, ziurtagiri bat egin zion eta azkenean bueltatu zizkioten eskopetak.

17. Soldaduak baserrian I

- **Erref:** MUT-094/027
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:38:31. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaian baserrian zeuden soldaduek balak erabiltzen zituzten. Berangoko soldadu bat gogoratzen du, neguan putzu batean bainatu eta elurretan bueltak ematen zituena. Gerraostean, mendian tratutan ibiltzen zen eta hil egin zen.</p>

18. Soldaduek baserriko sabaian lo egiten zuten

- **Erref:** MUT-094/028
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Soldaduek sabaian lo egiten zuten. Koltxoia lasto lehorrarekin betetzen zituzten eta mantekin berotzen ziren. Baserrian ez zen tiroketarik egon.</p>

19. Soldaduak baserrian II

- **Erref:** MUT-094/030
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Behin, soldadu errioxar batek txanpiñoiak batu zituen eta sukaldean zebilen bitartean, kapitaina heldu zen eta zartagina botazion, perretxiko hoiekin hilko ote zen beldurrez.</p>

20. Leizarren baserriko taberna

- **Erref:** MUT-094/032
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:42:52. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Leizarren baserrian, taberna egon zen garai batean. Kantu bat dago. Eguraldi ona zegoenean, jende asko joaten zen sagardoa edatera. Pasadizo bat kontatzen du.</p>

21. Aitonak baserri inguruko lurak erosi zituen

- **Erref:** MUT-094/033
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:45:38. **Bukatu:** 00:48:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Baserrian, garia, artoa, sagarra... lantzen zuten. Aitonak, herriko jendeari lur zati txikiak erosten hasi zen. Horregatik, lur-zati bakoitzak izen ezberdina du: Mahastizarra, Floresena, Brunonekua, Kartutxona... Mahastiak egon ziren garai batean baina inguruan ez ziren egoten.</p>

22. Esnetarako behiak

- **Erref:** MUT-094/034
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:48:22. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Esnea saltzen zuten etxerik-etxe. Hamasei bat behi zituzten. Ixkuak saldu egiten zituzten eta txahal gutxi batzuk ere. Orain behi guztiak haragirako dituzte.</p>

23. Idiak eta laiak

- **Erref:** MUT-094/035
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:50:05. **Bukatu:** 00:51:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ferratokia izan zuten garai batean. Traktorea izan aurretik, idiekin lan egiten zuten. Laiekin nola lan egiten zuten azaltzen du.</p>

24. Artoa nola jasotzen eta lantzen zuten

- **Erref:** MUT-094/036
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:51:29. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arto garaian, laguntza izaten zuten. Prozesua nolakoa zen kontatzen du. Laguntzen ibili ziren batzuk aipatzen ditu: Atxili, Mari Carmen Leteren gurasoak...</p>

25. Idiak izatea ez zen oso ohikoa

- **Erref:** MUT-094/038
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:54:09. **Bukatu:** 00:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Idiak lanerako bakarrik zituzten, ez probetarako. Inguruko baserrietan ez zen normalean idirik egoten eta egonez gero, betiere lanerako izaten ziren.</p>

26. Igandea bazen ere, baserrian beti lanean

- **Erref:** MUT-094/040
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:56:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Igandetan, lehenengo mezetara joaten ziren. Eguerdian, ehizatzaera joaten ziren eibartarrak hartzen zituzten tabernan. Baserrian beti lana zegoen arren, lehenengo mezetara joan behar ziren.</p>

27. Garia eta haren aprobetxamendua

- **Erref:** MUT-094/041
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:09. **Bukatu:** 00:57:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia-jotzea nola egiten zen. Lastoa osorik sabaian gordetzen zuten. Argia egiteko ere erabiltzen zen lastoa, bai etxean eta baita gabez bideetatik joateko.</p>

28. Mendi bideak eta andabideak

- **Erref:** MUT-094/042
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:57:29. **Bukatu:** 01:00:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Garai batean bideak garbi mantentzen ziren eta suteak ez ziren egoten. Andabideak nondik pasatzen ziren. Bidegurutzeetan eta gurutzeak zeuden lekuetan gelditzen ziren erreztatzeko.</p>

29. Leizarrengo taberna

- **Erref:** MUT-094/044
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:01:26. **Bukatu:** 01:03:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Leizarreneko tabernara hurbiltzen zen jendeak tortilla jaten zuen. Batzuetan enkarguz ere egiten ziren eta bizpahiru aldiz otarrainxkak prestatu zirela gogoratzen du. Amak kozinatzen zuen.</p>

30. Txahalen prezioa ezberdina Gipuzkoan eta Bizkaian

- **Erref:** MUT-094/045

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:03:01. **Bukatu:** 01:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra garaian, urtero garia eman behar zuten baina urte batean gari guztia kendu zieten. Urtero, produkzioaren parte bat entregatu behar izaten zuten. Txahalak, Bizkaian garestia ordaintzen zirenez, kontrola egitera joaten zirenean, pare bat ezkutatu egiten zituzten. Behiak, pertsonak baino askoz ere gehiago kontrolatzen ziren, baina gaur egun kontrola askoz handiagoa da.</p>

31. Fraideak babarrun bila baserrietara

- **Erref:** MUT-094/046
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:06:36. **Bukatu:** 01:09:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Patata eta garia entregatu behar izaten zen. Babarrun bila fraideak joaten ziren baserriz-baserri.</p>

32. Garai batean 120 baserri zeuden Mutrikun

- **Erref:** MUT-094/048
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:09:42. **Bukatu:** 01:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Mutrikun garai batean 120 baserri zeuden martxan. Gaur egun oso zaila da baserritik bizitzea, dendetan saltzen dena askoz ere merkeago delako. Pentsua.

33. Baserrian morroiak eta neskameak

- **Erref:** MUT-094/050
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:12:56. **Bukatu:** 01:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Morroiak izan dituzte baserrian, ezkondu eta gero ere. Behin Burgosko morroi bat izan zuten eta 18 urterekin Ameriketara joan zen. Neskameak ere izan zituzten, Justa eta Joxepa. Etxeko lanetan laguntzen zuten, ura errekatik ekartzen zuten...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com